

## **DIRU ITURRIAK**

- **Diru iturri nagusiak**

Diru sarrerak lortu al izateko gure diru iturri nagusia lokalen alokairuengatik irabaziko dugun dirua dela argi dago. Guk lokalen jabeek irabaziko duten portzentai batekin geldituko gara, baina herri desberdinetan lokal bat baino gehiago izango dugunez lokal bakoitzeko izango dugun portzentaia ez da handiegia izango. Gainera, lokalaren prezioa prezio dinamikoa da eta merkatuaren egoeraren arabera aldatu daiteke. Zehatzagoak izanez, negoziazioa edo tratua gertatzen da lokalekin eta, gure kasuan, 3 alde ezberdinek hartzen dutenez parte aldaketak egon ahal dira. Aplikazioak ere diru sarrerak eman ahal dizkigu, baina oso prezio dinamikoa da, diru sarrerak lortzeko deskarga mordoak behar ditugu eta.

- **Diru iturrien portzentaia**

Lokalaren prezioa jabeak ezarriko du, orduan gazteek erabaki beharko dute ados dauden, negoziatu nahi dute edo ezetza eman nahi duten. Prezioa adostuta izandakoan, guk %20 arekin gelditzea proposatuko diegu lokal guztietako jabeei. Lokal bakoitzagatik 500€ ordaindu beharko dute gazteek gutxi gora behera eta guk 100€ irabaziko ditugu.

- **Lehen inbertsiotarako diru sarrerak**

Gure inbertsiorik handiena, ordenagailua erosteko eta langileari ordaintzeko behar dugun dirua izango da. Gure funtsezko elkarteetatik lortzen dugunarekin ordenagailua ordainduko dugu eta langilearen lehenengo hilabetea ere, baina hurrengo hilabeteetan alokairuek emango digute langileei 1.500€ ak ordaintzeko dirua. Durangalde osoan izango ditugu lokalak, guztira 12 herri dira eta batazbestekoa eginez herri bakoitzean 10 lokal izango ditugu gutxi gora behera, handienetan gehiago eta txikienetan gutxiago. Lokal bakoitzetik 100€ lortuko ditugu, beraz, 12.000 € lortuko genituzke hilero gutxi gora behera. 3.000 erabiliko genituzke langileei ordaintzeko eta guk 9.000€ ko sarrera izango genuke hilero.

